

Neurriak

Ahal banintu

Itsasoak itsasoeri

Mendiak mendieri

Ibarrak ibarrieri

Harriak harrieri

Bezala

Ahal banintu lotu

Herriak herrieri

Eskualdeak eskualdeeri

Probintziak probintzieri

Gure Euskadin

Ahal banintu

Kolareak koloreekin

Urak urekin

Haizeak haizeekin

Sasoinak sasoinekin

Bezala

Ahal banintu nahasi

Xuberotarrak Bizkaitarrekin

Lapurtarrak Napartarrekin

Alabatarrak Gipuzkoarrekin

Euskaldunak kanpotik etorriekin

Gure Euskadin

EZ LITAKE EZ

Handi-mandirik

Edo

Xuri-gorririk

Aberats-pobrerik eta

Poliz-gizonik

Ez eta


Presondegirik eta auzitegirik

Gure Euskadin



Manex Erdozaintzi-Etxart,
1971ko Irailean


Hinki-Hanka- Poesia ELkar



Hiztegia

ibar: haran, balea
eskualde: herrialde
probintzia: ad. Nafarroa Behera
handi-mandi: manatzaile dirudun urguilutsu
aberats: diru anitz duena
auztegi: justizia egiteko epaitegi

Euskal Herriko probintziak





Txoria-Zigor

Manex Erdozaintzi-Etxart



(**Ibarla**, Nafarroa Behera, 1934ko uztailaren 15a- Tolosa, Okzitania, 1984ko apirilaren 29a) frantziskotar fraidea, euskaltzalea eta euskal idazlea izan zen.



Idazle gisa, artikulua eta olerki anitz idatzi zituen, eta eleberri bat ere bai. **Neurriak** poema *Hinki-Hanka* olerki bilduman argitaratu zuen.

Gure lehen irudipenak (partekatzea)

- a- Zer da olerki eta kantu honen gaia?
- b- Zer diozu Picassoren ilustrazio horiez, egokiak dirudite?



Seinaleen aurkitzea

- a- Zerk erakusten dizu *Neurriak* olerkia dela?

- b- Zer forma eman dio bere olerkiari?

◇ zortziko ttipia ◇ zortziko handia ◇ olerki librea

- c- Non emanak dira errimak, zein lerroetan?

- d- Zenbat estrofa dira? Nola hasten dira 4 lehen estrofak?

- e- Ba ote dakizu nola deitzen den "*banitu...nintzateke*" aditz mota?

Sentipenak irudikatzea eta amets egitea

- a- Kopla bakoitzaren gaia edo ideia sailka ezazu.

(baldintzak)				(ondorioak)
1	2	3	4	5

b- Film batekin ilustratu behar bazenu, nola erabiliko zenuke kamera?

◇ Urruneko plan orokorretik lehen plano hurbilera

◇ Lehen plano hurbiletik urruneko plan orokorrera

--	--	--	--	--

c- Zer da poetak erran nahi diguna edo zein da (dira) sentipen nagusia?

◇ naturaren maitasuna

◇ amodiozko pena baten sentipena

◇ natura binaka sailkatzea

◇ mundu hobe baten itxaropena

◇ bakearen nahia

◇ elkartasun gehiagoren xedea

d- Pier Paul Berzaitzek, Peio eta Pantxoa bikoteak eta Ezpela Koruak, besteak beste, olerki hau kantuz eman dute. Zuk ere Neurriak olerkia ikas ezazu.

(Deezer edo Youtube-n entzun dezakezu)

Idaztea



a-Igor ezazu bakea irudikatzen duen poema bat.

Karta hori kartoizko paper batean edo molde digitalean egin ezazu.

Maite duzun olerki baten zati bat kopia ezazu, idazlearen izena ahortzi gabe.

Picasso, Zumeta... edo beste artista baten gisa ilustratu ezazu.

b- *Neurriak* bezalako olerki bat idatz ezazu, *Ahal banu, banitu, etab.* formako aditz batez hasten dena eta *nintzateke, ez nintzateke, etab.*, formako aditz batez bururatzen.

Urteberriko agiantza edo zorion-karta batean idazten ahal duzu eta ilustratu.



Eskuaren hatza erabiliz egin da.